

**2017ko MARTXOAREN 30ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA** **3 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2017ko martxoaren 30ean, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Xabier Txurruka Fernandez jn.
<b>Bertaratutako zinegotziak</b>	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
<b>Idazkaria</b>	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
<b>Kontu-hartzailea</b>	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

## GAI-ZERRENDA

### **1.- 2017ko OTSAILAREN 23ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA: 2017ko OTSAILAREN 20tik MARTXOAREN 24ra**

Segidan, Alkatetzak 2017ko otsailaren 20tik martxoaren 24ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

### **3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA: 2017ko OTSAILAREN 20tik MARTXOAREN 20ra**

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko otsailaren 20tik martxoaren 20ra hartutako erabakien berri izan du udalbatzak.

### **4.- 0342 DEKRETUAREN BERRI JAKITEA:**

#### **– Lankidetzaren arloa kudeatzeko ardura**

2015 O 020 0002 espedientea

Ondoren, eta Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, hitzez hitz ondoren jasotako erabakiaren berri eman dute:

Alkatetzaren 0342 Dekretua, 2017ko martxoaren 8koa:

“2016ko urtarrilaren 14ko 0040 Dekretuaren bidez, Alkatetza honek Pablo Garcia Astrain zinegotziari eman zion LANKIDETZA arloa kudeatzeko ardura.

Hark karguari uko egin ondoren, 2017ko otsailaren 23ko osoko bilkuran, Patxi Elola Azpeitia jaunak Zarauzko Udaleko zinegotzi kargua hartu zuen.

Hori horrela, PSE-EE udal taldeak eskatuta, eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 11. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabilia, **ERABAKI DUT:**

**Lehena.**- PATXI ELOLA AZPEITIA jaunari ematea Udaleko LANKIDETZA arloa kudeatzeko ardura, eskumenaren titulartasuna laga gabe.

Halaber, bere gain hartuko du, baldintza berdinetan, Ingurumen arloan sartuta dauden UDAL BARATZEAK kudeatzeko ardura.

**Bigarrena.**-Ardura horrek eragina izango du ordezkariak zinegotzi izaera duen denboran. Dena den, edozein unetan eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, kudeatzeko ardura aldatu edo baliogabetu ahal izango da.

**Hirugarrena.**- Dekretu hau izendatutako ordezkariari jakinaraztea, ardura onar dezan. Udalbatzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.

**Laugarrena.**- Dekretu hau Alkatetzaren ebazpen-liburuan transkribatuko da, eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina."

## **5.- ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN (TAO) ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA**

2013 I 133 0001 espedientea

Aztergai honi dagokionez, lehenbizi, idazkari andreak irakurri du prestatutako akordio-proposamena, eta adierazi du IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak Herritarren arloko informazio-batzordearen irizpenari boto partikularra eman ziola.

Hortaz, jarraitu beharreko prozeduraren arabera, hurrena, IRABAZI ZARAUTZ taldeak defendatu du botoa; eta, segidan, botoa eztabaidatu eta bozkatu dute, ondoren zehaztutako emaitzarekin.

### **BOTO PARTIKULARRA**

#### **1. PUNTUA**

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

#### **2. PUNTUA**

Aldeko botoak:	2	(2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

#### **3. PUNTUA**

Aldeko botoak:	2	(2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	19	(10 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

#### **4. PUNTUA**

Aldeko botoak:	2	(2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)

Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)
---------------	---	--------------

## 5. PUNTUA

Aldeko botoak:	2	(2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Ondorioz, bozketa bakoitzean jasotako emaitzarekin, atzera bota dute IRABAZI ZARAUTZ udal taldeak emandako boto partikularra.

## AKORDIO PROPOSAMENA

Segidan, akordio-proposamena bera aztertu eta bozkatu du Udalbatzarrak Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Abstenciones:	—	

Horrenbestez, adierazitako botoen gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2017ko urtarrilaren 26an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak hasierako onespena eman zion ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN (TAO) ALDAKETARI, zehazten den moduan:

- Aldaketak sartu ziren: 3, 4, 6, 10, 10 Bis, 13 eta 14. artikuluetan eta I. eranskinean — “TAO ordenantzak araututako zonak” —.
- Xedapen Iragankorra kendu zen.

Espedientea jendaurrean egon den epean, alegazio hau aurkeztu dute:

Alegaziogilea	Data	Sarrera zk.
IRABAZI ZARAUTZ	2017/03/23	4272

Aurkeztutako alegazioa aztertu ostean, hori erabakitzeko proposamena egin du Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak, eta Hrritarren arloko informazio-batzordeak bere irizpena eman du, 2017ko martxoaren 29an egindako bileran.

Horrenbestez, aipatutako batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

## ERABAKI DU

**Lehena.-** Alegazioa ezestea, honako arrazoi hauengatik:

ALEGAZIOA	EZESTEKO ARRAZOTIAK
1. Udaldia murriztea: ekainaren 15etik irailaren 15era.	Udalaren iritzirako, uda parte ekainaren 1etik irailaren 30era arte luzatzen da, Zarauzko hondartzako erabilera-araubidea eta jarduerak arautzen dituen Ordenantzak 3. artikuluan jasota dagoen moduan.
2. Zirkulazio-baimena Zarautzen duten ibilgailuek dohainik aparkatu ahal izatea gune guztietan, eta tiketa atera behar izan gabe.	Ez dagokio ordenantzaren aldaketaren xede den gaiari.
3. Udalerrri osoan egoiliarrentzat gordetako guneak indarrean egotea goizeko 9:00etatik iluntzeko 20:00etara.	Ez dagokio ordenantzaren aldaketaren xede den gaiari.
4. Egoiliar ez diren langile eta autonomoen aparteko bereizgarria ("hilabeterokoa izango dela, eta ezingo dela zatitu" erreferentzia kentzea)	Ez dagokio ordenantzaren aldaketaren xede den gaiari.
5. Bereizgarria eskatzen ez duten egoiliarrentzako hobaria.	Hobaria ordenantza fiskalekin dago lotuta; beraz, hobaria ordenantza horretan finkatu behar da.

**Bigarrena.-** Behin betiko onartzea ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN (TAO) ALDAKETA.

**Hirugarrena.-** Aldatutako testua Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean sar dadin; eta hori, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70-2 artikuluan xedatutakoa betetzeko."

## 6.- GIZARTE ZERBITZUEN DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA. 2017. URTERAKO OINARRI BEREZIAK

2017 GGGG 0005 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	14	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2016ko martxoaren 31n egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak onartu zuen GIZARTE-ZERBITZUEN DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETA, eta 5. eranskina –Gazte kooperanteentzako diru-laguntzak– sartu zuen. Onartutako testua 2016ko ekainaren 7eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (107 zk.) argitaratu zen.

Kontuan hartuta interesdunek egindako eskaerak eta iradokizunak, Gizarte Zerbitzuen Departamentuak proposatu du 5. eranskin hori aldatzea, dagoen errealitateari hobeto egokitzeko.

Horiek horrela, eta 2017ko martxoaren 16an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, , botoen gehiengoarekin,

## ERABAKI DU

**Lehena.**- Hasierako onespena ematea GIZARTE-ZERBITZUEN DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETARI, 5. eranskinaren 1. zenbakiaren idazkera berriaren arabera.

### IDAZKERA BERRIA

#### **5. ERANSKINA: GAZTE KOOPERANTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK.**

##### 1.- Helburua

Zarauzko gazteak lagundu nahi dira, beharrik handiena duten herrialdeen garapenerako lankidetza-ekintzetan, eta herrialdeen eta kulturen elkartasun baloreak sustatzeko proiektuetan. Horretarako, gazteek aukera izango dute, herrialde horietan zuzenean parte hartzeko, garapenerako lankidetza-ekintzetan GGKE baten bidez. ~~Gutxienez ere sei asteko denboraldia egingo dute, eta horrek bide emango die egoera tokian ezagutzeko.~~

Jarduera burutu behar den herrialdean Gobernu Kanpoko Erakundeekin elkartuko diren tokiraino joan eta etortzeko gastuak ordaindu ahal izango dira, eta hala badagokio, baita ere, bisatua, herrialde horietan sartu eta irteteko zergak, gaixotasun eta istripuetarako aseguruak, eta herrialde horietara joateko beharrezkoak diren txerto eta botiken gastuak.

**Bigarrena.**- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

**Hirugarrena.**- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarrien aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berriazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

**Laugarrena.-** 2017. urterako Oinarri Bereziak onartzea eta, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

## ZARAUZKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK

### 5. ERANSKINA GAZTE KOOPERANTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

#### 1.- Helburua

Zarauzko gazteak lagundu nahi dira, beharrik handiena duten herrialdeen garapenerako lankidetzak-ekintzetan, eta herrialdeen eta kulturen elkartasun baloreak sustatzeko proiektuetan. Horretarako, gazteek aukera izango dute, herrialde horietan zuzenean parte hartzeko, garapenerako lankidetzak-ekintzetan GGKE baten bidez.

Jarduera burutu behar den herrialdean Gobernu Kanpoko Erakundeekin elkartuko diren tokiraino joan eta etortzeko gastuak ordaindu ahal izango dira, eta hala badagokio, baita ere, bisatua, herrialde horietan sartu eta irteteko zergak, gaixotasun eta istripuetarako aseguruak, eta herrialde horietara joateko beharrezkoak diren txerto eta botiken gastuak.

#### 2.- Eskaerak

- Programa honetan parte hartzeko eskaera egin aurretik, eskatzaileek gutxienez 18 urte izan behar dituzte, eta 30 gehinez. Eta gutxienez urtebete lehenagotik egon behar dute Zarautzen erroldatuta eta ez dute inongo GGKEekin lan-harremanik izango.
- Aldi berean, Zarautzen erroldatuta ez daudenek ere parte hartu ahal izango dute programa honetan, baldin eta Zarauzko Udalak diruz lagundutako proiekturen batean laguntzeko bada.
- GGKEren batek emandako lankidetzak-konpromisoren bat, abal edo eskutitzen bat eduki beharko dute eskatzaileek.
- Garapenerako lankidetzan eta boluntariorizan prestakuntza jaso dutela egiaztatuko dute; edo bestela, erakunderen batek emaniko ikastaro batean izena eman izanaren frogagiria aurkeztuko dute.

#### 3.- Balorazio-irizpideak

Eskaerak baloratzeko orduan hurrengo alderdiak hartuko dira kontuan:

- Jarduera egin behar den herrialdeko hizkuntza jakitea (20 puntu arte).
- Kasu bakoitzean egokienak diren eskola-agiriak (tituluak) edo lanbide-prestakuntza izatea, edota espezialitate horietan ikasten ari direla ziurtatzea. (20 puntu arte).
- Herrialde horretan dagoen bitartean egingo duen lanaren plana (30 puntu arte).
- Genero ikuspegia txertatzea (10 puntu).
- Gobernu Kanpoko Erakundeetan izandako eskarmentua (10 puntu arte).
- Gazteen elkarrekin edo helburu soziala dutenetan parte hartu izana (10 puntu arte).

#### 4.- Diru-laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntza hauen banaketa norgehiagoka araubidez egingo da.

Proiektu bakoitzerako diru-laguntzen zenbatekoa ezingo da izan 1.000 eurotik gorakoa edo aurrekontu osoaren %80tik gorakoa.

Onartu beharreko diru-laguntzak murriztu ahal izango dira, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat (edo batzuk) sartzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa balitz ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, lehiaketa prozedurak berez daukan lehenetasun-ordena ez da ezarri beharrik izango.

**7.- KIROL DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA. 2017. URTERAKO OINARRI BEREZIAK**

2017 SSSS 0001 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri eta udal taldeek beren jarrera azaldu ondoren, aho batez, erabaki hau hartu du Udalbatzarrak:

“2008ko maiatzaren 7an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK onartu zituen, horien artean, «Zarauzko Kirol Patronatua» erakunde autonomoari zegozkionak. Horien testu osoa 2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (140 zk.) argitaratu zen.

Halaber, 2009ko apirilaren 29an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak oinarri haien aldaketa onartu zuen; eta aldatutako testua 2009ko uztailaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (135 zk.) argitaratu zen.

Orain, Kirol Departamentuak proposamen bat aurkeztu du diru-laguntzak emateko oinarri berezi haiek aldatzeko.

Horiek horrela, eta 2017ko martxoaren 16an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

**ERABAKI DU**

**Lehena.**- Hasierako onespena ematea KIROL DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEI, erantsitako testuaren arabera.

**Bigarrena.**- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

**Hirugarrena.**- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarrien aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berriazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

**Laugarrena.**- Berriaz indargabetzea Kirol Departamentutik diru-laguntzak emateko orain arte indarrean zeuden oinarri bereziak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2008ko uztailaren 22an (140 zk.) eta 2009ko uztailaren 21ean (135 zk.) argitaratu zirenak, hain zuzen.

**Bosgarrena.**- 2017. urterako Oinarri Bereziak onartzea eta, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”



## KIROL DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK

### 1. HELBURUA

Oinarri hauen helburua da kirol arloan jarduerak egiten dituzten Zarautzko erakundeei, norgehiagoka araubidez, diru-laguntzak emateko prozedura arautzea. Hortaz, artikulua hauen bidez Zarautzko Udaleko Kirol Departamentuak orokorrean emango dituen diru-laguntzak arautuko dira, eta eranskinen bidez, berriz, diru-laguntza lerro bakoitzaren alderdi bereziak. Oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntza lerroak honakoak dira:

- 1.- Ikastetxeei diru-laguntzak.
- 2.- Kirol-klub eta elkarteei diru-laguntzak.

### 2. DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak ondoren adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsona juridikoek eskatu ahal izango dituzte:

Diru-laguntza hauen onuradun izaera izango du diru-laguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoak, edota diru-laguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak. Pertsona horrek, gainera, diru-laguntza lerro bakoitzerako dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza zehatzak bete beharko ditu.

Oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun ezin izango dira izan, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten den egoeraren batean diren pertsona edo erakundeak.

Pertsonak edo erakundeak, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezakete, onuradun izaera lortzeko debekuetan sarturik ez daudela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien ordez herri administrazio baten edota notario baten aurrean egindako aitortpenarenak aurkez daitezke.

Diru-laguntzekin batera aurkeztu beharreko zergei buruzko edo Gizarte Segurantzako ziurtagiriak ez dira aurkeztu beharrik izango, baldin interesdunak berariazko baimena ematen badio ziurtagiriak egiteko eskumena duen erakundeari bere datuak diru-laguntzen organo kudeatzaileari emateko.

### 3. ESKAERAK

1. Eskaerak Zarautzko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia, 29) aurkeztu behar dira, diru-laguntza hauen urteko deialdian xedatzen den epearen barruan, agiri hauekin batera:

- a) Eskaera orri ofiziala, behar bezala beterik; orria Zarautzko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia, 29) eskuratu daiteke.
- b) Dagokion deialdian diru-laguntza mota bakoitzerako eskatzen diren agiriak.
- c) Nortasunaren egiaztagiria (NAN, eraketaren eskriturak – dagokion erregistroan inskribatutakoak –, dagokion erregistroak egindako ziurtagiria, etab.).
- d) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duen frogagiria; edo bestela, zinpeko aitortpena ere aurkez daiteke, adierazteko betebeharrak horiek beteta dituela. Interesdunek adierazpen bat izenpetu eta horren bidez berariazko baimena eman dezakete, ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek, behar diren datuak, Zarautzko Udalaren laga utz ditzaten.
- f) Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, aitortpena, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- g) Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, banketxe batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, soilik diru-laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.

2. Oinarri hauek arautzen duten esparruan aurreko urteetan diru-laguntzarik eskuratu dutenek aski izango dute soilik aurreko ataleko a), b), e), f) eta g) puntuetan xedatutako agiriak aurkeztea.

3. Eskatzen diren agirietakoren bat Zarautzko Udalaren organoren baten esku baldin badago, diru-laguntzaren eskatzaileak erabil dezake urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2 artikuluan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi

beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

4. Halaber, eskaerak aurkez daitezke urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako bide eta lekuetan.

5. Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe horretan akatsak zuzentzen ez baditu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 21.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

#### **4. LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA**

Laguntza hauek norgehiagoka araubidez emango dira, oinarri hauen eranskinetan diru-laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako irizpideekin bat etorriz. Prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdiaren bitartez.

#### **5. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK FINANTZATZEA**

1. Diru-laguntza lerro bakoitzeko oinarriek, eranskinen arabera, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko ekarpen propio bat eska dezakete. Diruz lagundutako jarduerarako jarritako ekarpen propioa jardueran izandako gainerako gastuen modura egiaztatu beharko da.

2. Diru-laguntza lerro bakoitzaren eranskinetan besterik xedatzen ez bada, oinarri hauetan jasotzen diren diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europako Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatzen dena baztertu gabe.

3. Diru-laguntzen zenbatekoa ezin izango da, bakarrik nahiz beste diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo errekursoekin batera, aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagoa izan.

#### **6. IZAPIDETZEA**

1. Diru-laguntzak emateko prozedura izapidetzeko eskumena honako organo hauek dute:

- a) Izapidetza (instrukzio-organoa): Zarauzko udal kiroldegiko zuzendaria.
- b) Kide anitzeko organoa: Zarauzko Kirol Departamentuari dagokion informazio-batzordeko kideek osatua.

2. Instrukzio-organoak egingo ditu, ofizioz, datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatze behar diren ekintza guztiak, horien arabera ebazpen-proposamena gauzatzeko.

3. Eskaera bakoitzari buruz egingo den aurrebaluazioarekin emango zaio hasiera izapidetze faseari. Aurrebaluazioan ziurtatuko da eskaera egin duen pertsonak diru-laguntza jasotzeko onuradun izateko jarritako baldintzak betetzen dituela, eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta zuzena dela.

4. Instrukzio-organoak eskaeren ebaluazioa egingo du, deialdi bakoitzean ezarritako balioeste-irizpideen arabera.

5. Eskaerak ebaluatu ondoren, kide anitzeko organoak txostena prestatuko du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

6. Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organoak behar bezala arrazoitutako behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpen-proposamen hori interesdunei jakinaraziko zaie.

Prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango. Kasu horretan, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

7. Ebaluazioaren ondorioa diru-laguntza ez ematekoa baldin bada, eman beharreko ebazpenaren aurretik, interesdunei 10 eguneko epea eskainiko zaie entzunaldiaren izapidean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

#### **7. EBAZPENA**

1. Ebazpena Zarauzko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.

2. Diru-laguntza bakoitzaren oinarri arautzaile berezietan xedatutakoaren arabera arrazoituko da ebazpena. Dena den, prozeduran frogatuta gelditu beharko dira, diru-laguntzen emakida arautzen duten irizpide objektiboen arabera, hartuko den ebazpenaren oinarriak.

3. Diru-laguntza emateko ebazpenak argi zehaztu beharko ditu diru-laguntzaren xedea, eskatzailea edo eskatzaileen zerranda, zenbatekoa, ordaintzeko erak eta epeak, eta diru-laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzaileetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko dauden errekurso bideak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beti ere interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurso bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

4. Prozeduraren ebazpenak eman eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da deialdia argitaratzen denetik aurrera.

5. Oinarri hauetan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko prozeduraren baitan gerta daitezkeen ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, urriaren 13ko 39/2015 Legeak, 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta jakinarazpen hori artikulua berak jasotzen dituen xedapenenekin bat etorrta egingo da. Horrez gain, emandako diru-laguntzak Zarauzko Udalaren web-orrian ere argitaratuko dira.

## **8. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA**

Diru-laguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Zarauzko Udaleko Kirol Departamentuaren urteko deialdietan ezarriko dira.

Aurrekontuan izendatutako diru-kopurua nahikoa ez bada diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, banaketa proportzionala egingo da.

Bestalde, diru-laguntza lerro bakoitzerako zehaztutako diru-kopurua gehitu ere egin ahal izango da, Udal Aurrekontua Gauzatzeko Oinarriek aurreikusitakoarekin bat etorriz, baldin eta deialdi bakoitzean hala ezartzen bada.

Diru-laguntza ematea ebatzi baino lehen, baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du, aldaketaren zenbatekoaren arabera, eskumena esleituta duen organoak. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

## **9. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK**

Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, eranskinetan jasotakoez gain, hauek dira:

- Diru-laguntzen emakida sortu duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izan.
- Organo emailearen edo, hala badagokio, erakunde laguntzailearen aurrean betebeharrak eta baldintzak justifikatu, jarduera egin, eta diru-laguntzaren emakidak edo gozamenak zehazten duten xedea bete.
- Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortu.
- Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol-organoei egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarrita.
- Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarenak egunean dituela egiaztatatu.

Erakundeen ziurtagiriak aurkeztu beharrean, erantzukizuneko aitortpena aurkeztu beharko da, besteak beste, kasu hauetan:

- Onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoak deialdian 3.000 euroko kopurua gainditzen ez duenean.
- Zarauzko Udaleko organo eskudunak – diru-laguntzaren izaera, araubidea edo zenbatekoa direla-eta – behar bezala justifikatutako egoerak gertatzeagatik ezartzen dituenak.
- Herri Administrazioei eta horien mendeko sektore publikoko erakunde, organismo eta fundazioei emandako diru-laguntzak, baldin eta oinarri berezietan espresuki aurkakoa aurreikusten ez bada.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta horien federazio, konfederazio edo elkartei gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko eskaintzen zaizkien diru-laguntzak.

Gainerako kasuetan, pertsona edo erakunde eskatzaileak bere eskaeran baimena sartu ahal izango du, organo emaileak

ziurtagiri telematikoen bidez lor dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete izanaren egiaztapena; eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien ziurtagiriak ekarri beharko.

Urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2. artikuluan eskubidea aitortzen die herritarrei, lehendik Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko. Hortaz, Zarauzko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko, tokiko erakundeak berak espedienteari erantsiko zaion ziurtagiri bat egingo du.

- Hartutako fondoek aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen-eta kontrol-jardunen aztergai izan daitezkeenez, lau urteko epean gorde.
- Organo emaleari jakinarazi, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazioko zein nazioartekotatik, diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.
- Diru-laguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.
- Ordenantza orokorrean aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzuli.
- Diruz lagundutako jardueraren zabalkunde-ekintzetan, jasoarazi beharko da Zarauzko Udalaren diru-laguntza bidezko lankidetzan.
- Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.
- Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.
- Pertsona onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea.

## **10. DIRU-LAGUNTZAK ORDAINTZEA**

Arau orokor gisa, eta dagokion eranskinean beste formula bat ezartzen ez bada, oinarri hauek araututako diru-laguntzak emango dira, aurretik dagozkion administrazio-izapideak egin eta gero, gastua justifikatzeko frogagiriak aurkeztu ondoren.

## **11. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA**

Diru-laguntzaren erabileraren justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean eta oinarri hauetako eranskinetan ezarritakoari jarraiki egingo da, eta urteko deialdietan ezarritako epeetan aurkeztu beharko da.

## **12. PUBLIZITATEA**

Emandako diru-laguntzen zerrenda Udalaren web-orrian eta udaleko iragarki-taulan argitaratuko dira.

Bestalde, diru-laguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioaren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du euskaraz, eranskin bakoitzean zehazten den moduan.

## **13. DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA**

Oinarri hauetan edo diru-laguntza ematean ezarritako betebeharrakoren bat bete ezean, diru-laguntza berriro aztertuko da eta, horren arabera, diru-laguntza baliogabetu edo gutxitu ahal izango da eta baita itzultzeko eskatu ere, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37. artikuluan eta 52. eta hurrengo artikuluetan aurreikusten duen baldintzetan.

1. Jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira, eta diru-laguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Diru-laguntzei buruzkoak, 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta bereziki hurrengo kasu hauetan:

- Diru-laguntza eskuratzea horretarako ezarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratze hori galaraziko

luketen baldintzak ezkutatu.

- Diru-laguntza emateko oinarrian dagoen helburua, jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.
- Jasotako diru-laguntza zuritzeko betebeharra ez betetzea, edo zuritzea behar bezala ez egitea, 10. eta 11. oinarrietan xedatutakoaren arabera eta, hala behar denetan, diru-laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzaileetan.
- Diru-laguntza emateko ebazpenean xedatzen diren zabalkunde-neurriak jartzeko betebeharra ez betetzea.
- Indarrean diren legeetan aurreikusitako finantza egiaztatze eta kontroleko jardueri aurre egitea, aitzakiak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu gordetze aldetik diren beharkizunak ez betetzea ere, baldin jokoera horrek ezinezko egiten badu diru-laguntzaren erabilera egiaztatzea, helburua bete den jakitea, diruz lagundutako jarduerak benetakoak eta erregularrak diren ikustea, edo xede berarekin beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek (estatukoek, Europako Batasunekoek edo nazioartekoek) emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzea.
- Administrazioak onuradunei ezarritako beharkizunak ez betetzea; edota onuradunek diru-laguntza eman zaienean onartutako konpromisoak ez betetzea, baldin eta horrek zuzeneko eragina izaten badu helburuak lortzeko moduan, jarduera egiteko moduan, edo diru-laguntza emateko oinarrian izan den proiektua gauzatzeko edo jokabidea hartzeko moduan.

2. Emandako laguntzaren edo diru-laguntzaren zenbatekoak, bakarka, edo bestelako herri administrazioen edo erakunde publiko nahiz pribatu nazioko edo nazioartekoaren diru-laguntza edota bestelako laguntzarekin batera, onuradunak aurrera eramane beharreko jardueraren kostua gainditzen duenean, emakida egiteko ebazpena aldatu egingo da eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da garatutako jardueraren kostuaz gaindiko diru-kopurua.

Bi herri-erakunderen edo gehiagoren diru-laguntzak emanak direnean, eta puntu honetan aipatzen den soberakina gertatzen denean, emakida aldatu edo, bestela, dirua itzuliko da, eta hori egiteko erakunde haiek emandako kopuruen banaketa proportzionala aplikatuko da.

3. Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publikoko diru sarreratzat hartuko dira.

#### **14. DIRUA ITZULTZERA BEHARTUAK**

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuruoi dagozkien berandutza interesak. Beharkizun horrek ez du zer ikusirik, hartara iritsiz gero, ezar daitezkeen zigorrekin.

2. Dirua itzultzeko obligazio subsidiarioa izango dute merkataritza-sozietateetako administrazioak, edota beste pertsona juridiko batzuen legeko ordezkariak dutenak, baldin eta hautsitako obligazioak betetzeko beren egitekoak egin ez badituzte, beraiek hartutako erabakiekin urratzeak gerta badaitezke, edota beren mendekoek hartutakoak onartzen badituzte.

3. Halaber, bere jarduera bukatu duten pertsona juridikoen legeko ordezkariak dutenak izango dira, aplikagarri zaizkien legeko edo estatutuetaiko xedapenen arabera, dirua itzultzeko haien obligazioaren erantzule subsidiarioak.

#### **15. ARAUDI OSAGARRIA**

Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailearen 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

### **I. ERANSKINA**

#### **DIRU-LAGUNTZAK IKASTETXEELI, ESKOLA-KIROLAREN KUDEAKETARAKO ETA ARRETARAKO EGITURA ESPEZIFIKOAK GARATZEKO**

##### **1. HELBURUA**

Eranskin honen helburua da Zarauzko ikastetxeek diru-laguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Diru-laguntza horiek honetarako erabiliko dira: eskola-kiroleko jardueren kudeaketa eta arreta hobetzeko asmoarekin, izaera egonkorreko egitura espezifikokoak sortu eta garatzeko.

## 2. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Ikastetxe onuradunek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Ikastetxeak konpromisoa hartuko du eskola-kirolari arreta eskaintzeko egitura beharrezkoa sortzeko; egitura hori nahikoa izango da, jarduerak egitean sortzen diren koordinazio beharrei eta behar tekniko-hezitzaileei erantzuteko. Gainera, egitura horren barruan, eskola-kiroleko koordinatzailearen figura egongo da. Eta ikastetxeak zehaztuko ditu bai koordinatzaile horren eta eskola-kiroleko beharrezko teknikarien arteko harremanak, bai zuzendaritzaren, irakasleen (batez ere soinketakoak) eta guraso-elkarteko ordezkarien arteko harremanak. Horrela lortuko da jarduera horiek ikastetxeko hezkuntza proiektuan ongi txertatzea.
- Egitura honetan sartutako eskola-kiroleko teknikariak –bai koordinatzailea bera, bai zehazki funtzio tekniko-hezitzaileak betetzen dituztenak– ikastetxearen mende egongo dira, eta ikastetxea bera soilik arduratuko da horien izendapenez. Horrela bermatuko da teknikarien gaitasun egokia: bai alderdi tekniko-hezitzailean, bai eskola-kirolaren hezkuntza planteamenduekin lotutako gaitan.
- Eskola-kiroleko teknikari horiek prestakuntza eta teknifikazio jardueretan parte har dezaten bultzatuko du ikastetxeak, bai eskolan bertan egiten direnetan, bai herri mailan antolatutakoetan.
- Ikastetxeak konpromisoa hartuko du eskola-kirola kudeatzeko herri mailako egituretan parte hartzeko; egitura horren sorrera eta garapena Udalak bultzatuko ditu.
- Ikastetxeak egingo du ikasturte bakoitzean eskola-kirolean gauzatuko diren jardueren programa. Programa horretan jarduera guztiak sartuko dira, alde batera utzita fisikoki non garatuko diren (ikastetxean bertan, kirol elkarteetan...), zein urtealditan egingo diren (eskola garaian edo oporretan) edo jarduera horien helburuak zeintzuk diren (sustapena edo lehiaketa). Jardueren programa egiteko kontuan hartuko dira, alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Programak adierazitako jarraibideak; bestetik, Udaleko kirol-politikaren interesak; eta azkenik, ikastetxearen berezko helburuak; eta hori guztia herriko beste ikastetxeekin koordinatuta egingo da.
- Ikastetxeak konpromisoa hartzen du, benjamin eta alebin kategorietan, kirol izaera hutseko prestakuntza eta aisialdiko lehiaketa-jardueren programa espezifikoa egiteko, bat etorritik indarrean dagoen araudiarekin eta “Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Programaren” jarraibideekin.
- Eskola-kirolaren baitan jarritako helburu hezitzaileak betetzen direla zainduko du ikastetxeak, eta ikasle guztiei aukera emango die jarduera anitzetan parte hartzeko, betiere helburu horiek beteko direla bermatuta.
- Herri mailan eskola-kiroleko jarduerak garatzeko beharrezkoak diren kirol instalazioak jarriko ditu ikastetxe bakoitzak.
- Ikastetxeak herriko kirol-kluben lankidetzara bultzatuko du. Horren arabera, kirol elkarteetako zerbitzu teknikoek parte hartuko dute ikasle txikiak kirola egiten hasten direnean, betiere ikastetxeak jarritako helburu hezitzaileekin bat etorritik. Era berean, ikastetxeak bideak irekiko ditu, adin jakinetan eta kirol-modalitate bakoitzaren ezaugarrien arabera, ikasleek, eskolatze-aldia bukatuta gero ere, kirola praktika dezaten, xedea errendimendua izan ala aisialdia izan.

## 3. DIRU-LAGUNTZA ESLEITZEKO ETA ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Hiru kategoriatan banatuko da ikasturte bakoitzeko jarduerak diruz laguntzeko jarritako kopuru osoa:

- Benjamin kategoria
- Alebin kategoria
- Infantil kategoria

Kategorien arteko banaketa honakoaren arabera egingo da: hiru kategorietan matrikulatutako ikasle guztiak kontuan hartuta, kategoria bakoitzean matrikulatuta dagoen ikasle kopurua.

Kategoria bakoitzari dagozkion kopuruak zatitu egingo dira ikastetxeei kategoria bakoitzean esleitutako guztizko puntuazioarekin –puntu horiek jarraian adierazten diren balorazio adierazleen arabera emango dira–. Horrela kalkulatu da puntu batek kategoria bakoitzean zein balio ekonomiko duen. Ondoren, balio ekonomiko hori ikastetxeak atal bakoitzean lortzen dituen puntuarekin biderkatuko da, eta horiek guztiak batuta zehaztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

Balorazioko adierazleak eta horien puntuazioak ondorengoak dira:

- a) Benjamin kategoria: zentroan matrikulatutako benjamin kategoriako ikasle bakoitzeko 1 puntu.
- b) Alebin kategoria: zentroan matrikulatutako alebin kategoriako ikasle bakoitzeko 1 puntu.
- c) Infantil kategoria: kategoria honetara bideratutako kopurua ondorengo bi ataletan banatuko da, ondoren adierazten diren portzentajeak kontuan hartuta:
  - Koordinazio atala: % 58
  - Atal tekniko-hezitzailea: % 42

Koordinazio atala honela baloratuko da: zentroan matrikulatutako kategoria infantileko ikasle bakoitzeko 1 puntu.

Atal tekniko-hezitzailea honela baloratuko da: kategoria infantileko talde federatu bakoitzeko 1 puntu (hor sartzen dira klub federatuekin egindako hitzarmenen xede diren taldeak ere). Pilota taldeak 0,5 punturekin baloratuko dira.

#### **4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

Eskaera inprimakiarekin eta oinarri hauetako 3. artikuluan adierazitako agiriekin batera, egin beharreko jardueraren edo programaren memoria zehatza aurkeztu beharko du eskatzaileak.

#### **5. DIRU-LAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA**

Diru-laguntzaren erabilerearen justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da, eta Zarauzko Udaleko Kirol Departamentuaren deialdietan ezartzen diren epeetan aurkeztu beharko da.

Onuradunak modalitate hauetako baten bidez justifikatu ahal izango du ezarritako baldintzak bete direla eta diru-laguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla:

- Justifikazio-kontua
  - gastuaren frogagiriak ekarrita
  - ikuskariaren txostena ekarrita
  - erraztua
- Moduluka egiaztatzea
- Kontabilitate-egoerak aurkeztea

Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau izan beharko du:

1. Diru-laguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko.
2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta eduki hauek izango dituen:
  - Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituen. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.
  - Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako gastuaren frogagiriak, edo pareko froga-balioko edo administrazio-eraginkortasuneko dokumentuak, diru-laguntza publikoaren xedea bete izana ziurtatu ahal izateko.
  - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerara edo diru-laguntzen zerrenda xehatu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazten dituen.
  - Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Diru-laguntzaren emakidaren jakinarazpenean zehaztuko da kasu bakoitzean justifikazioa zein modalitatetan egin beharko den.

## **II. ERANSKINA**

### **ZARAUZKO KIROL-KLUBEN ETA ELKARTEEN EGITURA GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK**

#### **1. HELBURUA**

Eranskin honen helburua da Zarauzko kirol-klub eta elkarteek diru-laguntzak eskatzeko eta horiek, norgehiagoka araubidez, emateko prozedura arautzea. Diru-laguntza horiek euren egiturak garatu eta finkatzeko erabiliko dira.

Diru-laguntzak honako atal hauetan oinarrituta eskatu ahal izango dira:

- Zarauzko kirol-kluben ohiko jarduerak.

## 2. BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Diru-laguntza horiek lortzeko aukera izango dute ondorengo baldintzak betetzen dituzten kirol-klub eta elkarteek: egoitza soziala Zarauzko udalerrian dutenak eta jarduera nagusia bertan garatzen dutenak (herrian bertan ez dauden espazio bereziak behar dituzten modalitateak izan ezik)

- Indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egotea eta Kirol Erakundeen eta Elkarten Erregistroan (Eusko Jaurlaritza) inskribatuta egotea.
- Identifikazio Fiskaleko Kodea edukitzea eta zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.
- Egoitza Zarautzen edukitzea, eta bere jarduera nagusia ere bertan garatzea (herrian bertan ez dauden espazio bereziak behar dituzten modalitateak izan ezik).
- Gutxienez 25 federatu-lizentzia izatea taldeko kiroletan, edo gutxienez 15 federatu-lizentzia banakako kirol arloren batean.

d) puntuan jarritako baldintza ez da bete beharrik izango ondorengo kasu hauetakoren batean:

- Zarautzen gutxiengoak egiten duen kirol-modalitate batean aritzen den kluba bada.
- Emakumeen kirolean aritzen den kluba bada.
- Herri kirolen batean aritzen den kluba bada.

Ezin izango dituzte *ohiko jarduerak* ataleko diru-laguntzak eskatu, bazkide edo kirolariaren urteko kuota 600,00 eurotik gorakoa duten kirol-klubek eta kirol-taldeek.

## 3. DIRU-LAGUNTZA ESLEITZEKO ETA ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

### – Zarautzko kirol-kluben ohiko jarduerak

Esleipendun bakoitzak gehienez ere jardueraren aurrekontu osoaren %50eko diru-laguntza jasoko du.

Ondorengo kontzeptuen artean banatuko da ohiko jarduera diruz laguntzeko jarritako kopuru osoa, jarraian aipatzen diren portzentajeekin bat etorritik:

- Ohiko lizentzien kopurua: % 50
- Taldeen partaidetza eremua: % 20
- Atal kopurua: % 3
- Eliteko lizentzien kopurua: % 5
- Teknikarien titulazioak: % 5
- Kirol teknikarien prestakuntzarako jarduerak antolatzea: % 5
- Aparteko joan-etorriak: % 5
- UDA kanpainan jarduerak antolatzea: % 7

Kopuru horiek zatitu egingo dira kirol-erakundeei atal bakoitzean esleitutako puntuazio osoarekin –puntu horiek jarraian adierazten diren balorazio adierazleen arabera emango dira—. Horrela kalkulatu da puntu batek atal bakoitzean zein balio ekonomiko duen. Ondoren, balio ekonomiko hori kirol-klubak atal bakoitzean lortzen dituen puntuarekin biderkatuko da, eta horiek guztiak batuta zehaztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

Hona hemen balorazio-adierazlea eta horien puntuazioak:

1.- Federazioko kirol-lizentzia bakoitzeko (elite kirolekoak izan ezik):

- Lizentzia bakoitzeko puntu 1.
- Mendiko, ehizako (kirol lizentziak) eta arrantzako (kirol lizentziak) lizentziak puntu batekin baloratuko dira, 350eko muga arte, eta hortik gorakoak puntu erdiarekin.
- Pilotako lizentziak 4 punturekin baloratuko dira.
- Arrauneko eta herri-kiroletako lizentziak 2 punturekin baloratuko dira.
- Emakumeen federazioko lizentziak (mendikoak, ehizakoak eta arrantzakoak izan ezik) 1,5 punturekin baloratuko dira, 3 punturekin arraunekoak eta herri-kiroletakoak badira, eta 6 punturekin pilotakoak izan gero.



Honako hauek hartuko dira federazioko lizentziatzen: infantil eta kadete kategorietako ikasleen lizentziak, baldin eskola-lehiaketetan kirol-klub gisa parte hartzen badute; ikastetxeetako infantil eta kadete kategorietako ikasleen lizentziak, baldin klubak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatuta badu modalitate horretarako, eta klubak kirol horretan kirolari federatuak baditu.

2.- Puntu bat eliteko kirolean federatutako lizentzia bakoitzeko.

Oinarri hauen ondorioetarako eliteko kiroltzat hartuko da, bere kirol-modalitatean, kategoria absolutuan, mailarik gorenean parte hartzen duen taldea; edo goreneko bi mailatan, baldin txapelketa estatu mailakoa bada eta kirol-jarduera hori gutxienez goreneko lau mailatan egituratuta badago. Banakako kirol-modalitateetan eliteko kirolaritzat hartuko da estatu edo goragoko mailako txapelketa ofizialetan parte hartzen duena, baldin txapelketok kategoria absolutukoak badira eta partaidetza askekoak ez badira.

3.- Talde bakoitzak txapelketa ofizialetan duen lurralde-eremuaren arabera (oinarri hauen ondorioetarako taldeko kirol-modalitate gisa hartzen direnetan soilik).

- Lurralde mailan: 0,5 puntu x taldekideen kopurua
- Erkidego mailan: 1 puntu x taldekideen kopurua
- Estatu mailan: 5 puntu x taldekideen kopurua

4.- Honako titulu bakoitzeko:

- Entrenatzaile nazionala (edo baliokidea): 1 puntu

Puntuazio hori bikoiztu egingo da, frogatzen bada kirol-teknikariak euskarako honako titulazioren bat duela: EGA, Hezkuntzako 3. HE edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko titulua.

5.- Klubaren kirol atal bakoitzeko, bigarrenetik kontatzen hasita:

5 puntu bakoitzeko, eta 10 puntu baldin atalak gizonetako eta emakumetako kirolariak baditu (kirol-ataltzat soilik hartuko da kirol-modalitate aitortuekin bat datozenak eta gutxienez federatutako 10 kirolari dituztenak).

6.- Kirol-teknikarien prestakuntzarako jarduerak antolatzeagatik:

Jarduera bakoitzeko gehienez 10 puntu, eta puntu 1 bakoitzean aritzen den partaide bakoitzeko (jarduera bakoitzeko gehienez 20 puntu).

7.- Kirol-txapelketa ofizialetara egindako aparteko joan-etorriak.

Aparteko izaera duten kirol-txapelketa ofizialak jokatzeko (ataleko faseak, txapelketetako azken faseak...) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde historikotik kanpora egindako joan-etorriak baloratuko dira.

Honako formula honen arabera emango dira puntuak:

Puntuak: (km kop. (joana eta etorria) x mugitutako pertsona kopurua)/1.000

Oinarri hauen ondorioetarako, taldeko kirol-modalitateetan, talde bakoitzeko gehienezko kide kopurua, kasu bakoitzean, Xedapen Gehigarri honetan ezarritakoa izango da.

- 1.- FUTBOLA: 16 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 2.- ARETO FUTBOLA: 10 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 3.- SASKIBALLOIA: 10 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 4.- ESKUBALLOIA: 14 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 5.- ERRUGBIA: 20 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 6.- BOLEIBOLA: 12 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria
- 7.- BEISBOLA/SOFTBOLA: 18 jokalaria + entrenatzailea + ordezkaria

“Lurralde-eremuaren” atalean, taldeko modalitatetzat hartuko dira banakako kirolariak, baldin gutxienez 10 eguneko txapelketa ofizialeko egutegian parte hartzen badute eta ekipo bakoitzeko gutxienez 3 kirolariko ekipoak osatzen badituzte. Kasu horretan, ekipo modura kontatzen diren lizentziak ez dira banakakotzat hartuko. Puntuazioa emateko, txapelketa-egun gehienak egingo dituzten txapelketen eremua hartuko da.

#### 4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera inprimakiarekin eta oinarri hauetako 3. artikuluan adierazitako agiriekin batera, egin beharreko jardueraren edo

programaren memoria zehatza aurkeztu beharko du eskatzaileak.

## 5. DIRU-LAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Diru-laguntzaren erabileraren justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da, eta Zarauzko Udaleko Kirol Departamentuaren deialdietan ezartzen diren epeetan aurkeztu beharko da.

Onuradunak modalitate hauetako baten bidez justifikatu ahal izango du ezarritako baldintzak bete direla eta diru-laguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla:

- Justifikazio-kontua
  - gastuaren frogagiriak ekarrita
  - ikuskariaren txostena ekarrita
  - erraztua
- Moduluka egjatzatzea
- Kontabilitate-egoerak aurkeztea

Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau izan beharko du:

1. Diru-laguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jarduera-memoria bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko.
2. Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta eduki hauek izango dituen:
  - Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituen. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.
  - Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako gastuaren frogagiriak, edo pareko froga-balioko edo administrazio-eraginkortasuneko dokumentuak, diru-laguntza publikoaren xedea bete izana ziurtatu ahal izateko.
  - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerara edo diru-laguntzen zerrenda xehatu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazten dituen.
  - Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Diru-laguntzaren emakidaren jakinarazpenean zehaztuko da kasu bakoitzean justifikazioa zein modalitatetan egin beharko den.

## 8.- BERDINTASUNERAKO DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA. 2017. URTERAKO OINARRI BEREZIAK

2017 F 999 0001 espedientea

Proposamena irakurri eta aztertu ondoren, Udalbatza osatzen duten 21 zinegotziek baiezko botoa eman diote. Beraz, aho batez, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

“2009ko abenduaren 30ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak onartu zituen BERDINTASUNERAKO DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK; eta horien testu osoa 2010eko martxoaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (56 zk.) argitaratu zen.

Orain, Parekidetasun Departamentuak proposamen bat aurkeztu du diru-laguntzak emateko oinarri berezi haiek aldatzeko.

Horiek horrela, eta 2017ko martxoaren 16an egindako bileran Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehena.**- Hasierako onespena ematea PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUTIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEL, erantsitako testuaren arabera.

**Bigarrena.**- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

**Hirugarrena.**- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarriak behin betiko onartutzat hartuko dira, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

**Laugarrena.**- Berariaz indargabetzea Parekidetasun Departamentutik diru-laguntzak emateko orain arte indarrean zeuden oinarri bereziak, 2010eko martxoaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (56 zk.) argitaratu zirenak, hain zuzen.

**Bosgarrena.**- 2017. urterako Oinarri Bereziak onartzea eta, deialdiarekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

## DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIAK PAREKIDETASUN DEPARTAMENTUA

### 1. Helburua

Ondorengo egintzetara bideratutako jarduera, proiektu edo programak egiten dituzten pertsonen edo irabazi-asmorik gabeko erakundeetara norgehiagoka araubidez diru-laguntzak emateko prozedura arautzea da deialdi honen helburua:

- Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatu eta bultzatzea eta beren artean dauden desberdintasunak gainditzea.
- Zarauzko emakumeen asoziazionismoa sustatzea eta erakundeetan nahiz gizarte eta kulturaren alorrean beren partaidetza indartzea.
- Zarauzko herritarrak eskubide eta aukera berdintasunarekiko sentsibilizatzea eta berdintasun horretaz kontzientziaraztea.
- Emakumeen parte-hartze aktiboa nahiz emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatzeko jarduerak sustatzen dituzten erakundeen sorrera bultzatzea.
- Emakumeen aukera berdintasunaren inguruan nahiz beren eskubideen sustapen eta defentsaren alorrean, ikerketa, sentsibilizazio eta dibulgazioko jarduerak egitea.
- Emakumeen aurkako biolentzia prebenitzera eta desagerraraztera bideratutako jarduerak, biktimen eskubideak defendatzekoak eta horiek beren onera etortzeko eta sozialki normalizatzeko egiten direnak. Jarduera hauek Udalak sustatzen dituen gainerako osagarriak izan beharko dira.
- Erantzukizun pertsonalen, familiarren eta profesionalen arteko kontziliazio-beharraz sentsibilizatzea eta kontziliazio-neurriak sustatzera bideratutako jarduerak egitea.

- Eremu publikoan zein pribatuan, emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bultzatzera bideratutako beste jarduera batzuk egitea.

Diruz lagunduko dira deialdi urtearen urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra egindako jarduketak.

## 2. Eskaerak

Diru-laguntza horiek pertsonak eta irabazi-asmorik gabeko elkarteek eskatu ahal izango dituzte, legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera Zarauzko udalerrian garatzen dutenak.

Pertsona edo elkarte eskatzaileek ondorengo baldintzak ere bete egin beharko dituzte:

- Beren jarduera guztietan hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiliko dituzte.
- Elkartearen onartzeko prozesuetan eta bere funtzionamenduan ezingo dute bereizkeriarik egin sexua, ideologia, jatorri etnikoa, nazionalitatea edo sexu-joeragatik.
- Programan edo jardueran genero ikuspegia txertatu behar dute.

Berdintasunerako Departamentuak diru-laguntzak emateko urtero egiten duen deialdian eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da eskabidearekin batera.

Berdintasunerako Departamentuaren urteko deialdian zehazten den eskabide ofizialaren ereduko atal guztiak bete egin beharko dira eskabideak.

Dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira eskabideak:

Etzezabala Herritarren Arreta Zerbitzua (HAZ): astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan 7:30etik 15:00era eta ostegunetan 7:30etik 19:00etara.

## 3. Prozedura

Diru-laguntzak emateko prozedura Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokor arautzailean ezarritakoa izango da.

## 4. Balorazio irizpideak

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren eskaerak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutzienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

- Programa edo jardueraren helburuak eta edukiak eraginkorrak izatea emakumeen eskubideen defentsarako, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta/edo indarkeria sexista ekiditeko: gehienez 35 puntu.
- Elementu berritzaileak, teknologia berrien erabilera eta jarduera zabaltzeko baliabideak, zarauztarren partaidetza sustatze aldera: gehienez 15 puntu.
- Proiektuan onura izango duten Zarauzko pertsona kopurua: gehienez 5 puntu.
- Emakume atzerritarrei, zailtasun bereziak dituztenei, indarkeria edo diskriminazioaren bat jasaten dutenei zuzentzea: gehienez 15 puntu.
- Zarauzko emakumeen premiei erantzuteko jarduera berria izatea: gehienez 10 puntu.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko edo/eta indarkeria sexista ekiditera zuzendutako politiken edo jardueren garapenean egindako ibilbidea: gehienez 10 puntu.
- Berdintasunerako Udal Kontseiluan aktiboki parte hartzea eta Parekidetasun departamentuarekin lankidetzatza: gehienez 5 puntu.
- Proiektua eta bere jarduerak garatzean euskararen erabilera bermatzea. (gehienez 5 puntu)

## 5. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntza hauen banaketa norgehiagoka araubidez egingo da.

Ezingo da deialdian zehazten dena baino zenbateko handiagoko diru-laguntzarik eman, Legea garatzeko Erregelamenduan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

Baldin eskura dagoen aurrekontu-esleipenarekin eskatutako zenbatekoen zati bat estaltzeko soilik iristen bada, emandako zenbatekoak proportzionalki banatuko dira, baldintza berdinetan, onartutako diru-laguntza guztien artean.

Emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek.

Pertsona edo erakunde onuradunak jakin bezain laster jakinarazi beharko du diruz lagundutako jarduera finantzatzeko diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide horiek lortu dituela, eta nolahi ere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste administrazio publikoek xede berarekin emandakoekin batera, diruz lagundutako obra edo jardueraren kostua gainditu.

## 6. Zuzkidura eta aurrekontuko partida

Diru-laguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Parekidetasun Departamentuaren urteko deialdian ezarriko dira.

## 7. Ebazpena

Ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Berdintasunerako Departamentuko teknikaria.
- Balioespen Batzordea: Kide anitzeko organo bat, Herritarren arloko Informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena: Alkatezari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan, une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi bateko eskuordetzei jarraiki.

## 8. Jakinarazpen-epea

Ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.

## 9. Diru-laguntzaren erabileraren justifikazioa

Erakunde onuradunak justifikatu beharko du diru-laguntza erabili dela, ezarritako baldintzak bete direla eta diru-laguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla.

Justifikazio-kontua modalitatea erabiliko da, eta honako informazioa jaso beharko du:

1. Diru-laguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko **Jarduera-memoria bat**, burututako jarduerak, partaideen edo hartzaileen kopurua, sexuka bereiztuta, eta lortutako emaitzak adierazita. (VII. eranskina eredia jarraituz).
2. **Memoria ekonomiko bat** (VIII. Eranskina), egindako jardueren kostua justifikatzeko, eta hauek barne hartuko dituenak:
  - a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data biltzen dituen. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.
  - b) Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako gastuaren frogagiriak, edo pareko froga-balioko edo administrazio eraginkortasuneko dokumentuak, diru-laguntza publikoaren xedea bete izana ziurtatu ahal izateko.
  - c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda xehatu bat, zenbatekoa eta beren jatorria adierazten dituen.
  - d) Hala badagokio, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Diru-laguntza justifikatzeko memoriak, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu beharko dira, eta orriko bi aldeetatik inprimatuta.

Diru-laguntza erabili izanaren justifikazioa Parekidetasun departamentuaren urteko deialdian ezarritako epean aurkeztu beharko da.

## 10. Diru-laguntzen abonua eta ordainketa aurreratua

Ordainketa aurreratutako egin ahal izango dira justifikazioaren aurretiko fondo-entrega moduan, diru-laguntzei atxikitako jarduerak burutzeko beharrezko finantzaketa gisa. Aurrerapen horien zenbatekoa urteko deialdian zehaztuko da.

#### **11. Publizitatea**

Diru-laguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioaren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz.

Publizitate horretan Zarauzko Udaleko Parekidetasun Departamentuaren erakunde-irudia txertatu beharko da derrigorrez, eta baita finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere txartel, plaka oroigarri, material inprimatu, euskarri elektronikoa edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

#### **12. Araudi osagarria**

Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailearen 25eko BOE); eta Zarauzko Udalean diru-laguntzak emateko indarrean dagoen Ordenantza Orokorraren arautzailea (140 zkiko. GAO on argitaratuta, 2008-07-22an).

#### **13. Errekurtsoak**

Oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean, onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

## **9.- UDALTZAINGO DEPARTAMENTUAN HUTSIK DAUDEN UDALTZAIN PLAZAK BIRJARTZEA**

2017 I 310 0002 espedientea

Udal taldeek beren azalpena egin ostean, zinegotzi guztiek aldeko botoa emanda, aho batez, Udaltzarrak erabaki hau hartu du:

“Zarauzko Udalak, duela gutxi, 2016 eta 2017 ekitaldiei dagozkien Lan Eskaintza Publikoak onartu ditu (LEP), 48/2015 Legeak, Estatuaren 2016. urterako aurrekontu orokorreari buruzkoak aurreikusitakoarekin bat etorriz. Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako bi erabaki dira: bata 2016ko abenduaren 30ean, eta bestea 2017ko otsailaren 6an. Horien arabera, guztira hutsik dauden 6 udaltzain plaza birjarri behar dira Udaltzaingo Departamentuan. Giza Baliabideetako Departamentuak emandako datuek adierazten dute 2015 ekitaldian lau baja egon direla (LEP 2016) eta 2016 ekitaldian, berriz, hiru baja egon direla (LEP 2017).

Zarauzko Udaleko azken Plantillaren eta Lanpostuen Zerrendaren arabera, guztira 17 udaltzain plaza daude hutsik. Aurrekontuen azken legeen izaera murriztailea dela-eta, udal plantilla “izoztu” egin da. Izan ere, kontuan izan behar da 2011koa dela azken lan eskaintza.

Dena den, aipatu beharra dago 48/2015 Legeak zer aurreikuspen egiten dituen langile berriak sartzeko mugei buruz:

*Artículo 20 Oferta de Empleo Público u otro instrumento similar de gestión de la provisión de necesidades de personal*

Uno.

1. *A lo largo del ejercicio 2016 únicamente se podrá proceder, en el Sector Público delimitado en el artículo anterior, a excepción de las sociedades mercantiles públicas y entidades públicas empresariales, fundaciones del sector público y consorcios participados mayoritariamente por las Administraciones y Organismos que integran el Sector Público, que se regirán por lo dispuesto en las disposiciones adicionales décima quinta, décima sexta y décima séptima, respectivamente, de esta Ley y de los Órganos Constitucionales del Estado, a la incorporación de nuevo personal con sujeción a los límites y requisitos establecidos en los apartados siguientes, salvo la que pueda derivarse de la ejecución de procesos selectivos correspondientes a Ofertas de Empleo Público de ejercicios anteriores o de plazas de militares de Tropa y Marinería profesional necesarias para alcanzar los efectivos fijados en la Disposición adicional décima cuarta.*

*La limitación contenida en el párrafo anterior alcanza a las plazas incursas en los procesos de consolidación de empleo previstos en la Disposición transitoria cuarta del Estatuto Básico del Empleado Público.*

2. *Respetando, en todo caso, las disponibilidades presupuestarias del Capítulo I de los correspondientes presupuestos de gastos, en los siguientes sectores y administraciones la tasa de reposición se fijará hasta un máximo del 100 por ciento:*

*A) A las Administraciones Públicas con competencias educativas para el desarrollo de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (LA LEY 4260/2006), en relación con la determinación del número de plazas para el acceso a los cuerpos de funcionarios docentes.*

*B) A las Administraciones Públicas con competencias sanitarias respecto de las plazas de hospitales y centros de salud del Sistema Nacional de Salud.*

*C) A las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, a los Cuerpos de Policía Autónoma de aquellas Comunidades Autónomas que cuenten con Cuerpos propios de dicha Policía en su territorio, y, en el ámbito de la Administración Local, al personal de la Policía Local, en relación con la cobertura de las correspondientes plazas de dicha Policía.*

***En el supuesto de las plazas correspondientes al personal de la Policía Local, se podrá alcanzar el cien por cien de la tasa de reposición de efectivos siempre que se trate de Entidades Locales que cumplan o no superen los límites que fije la legislación reguladora de las Haciendas Locales o, en su caso, las Leyes de Presupuestos Generales del Estado, en materia de autorización de operaciones de endeudamiento. Además, deberán cumplir el principio de estabilidad al que se refiere el artículo 11.4 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera (LA LEY 7774/2012) tanto en la liquidación del presupuesto del ejercicio inmediato anterior como en el presupuesto vigente. En relación con este último, la Entidad deberá adoptar un Acuerdo del Pleno u órgano competente en el que se solicite la reposición de las plazas vacantes y en el que se ponga de manifiesto que aplicando esta medida no se pone en riesgo el cumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria. Lo indicado en el presente párrafo deberá ser acreditado por la correspondiente Entidad Local ante el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas, previamente a la aprobación de la convocatoria de plazas.***

*(.../...)*

3. *En los sectores y Administraciones no recogidos en el apartado anterior, la tasa de reposición se fijará hasta un máximo del 50 por ciento.*

4. *Para calcular la tasa de reposición de efectivos, el porcentaje máximo a que se refiere el apartado anterior se aplicará sobre la diferencia resultante entre el número de empleados fijos que, durante el ejercicio presupuestario de 2015, dejaron de prestar servicios en cada uno de los sectores, ámbitos, cuerpos o categorías, previstos en el apartado anterior y el número de empleados fijos que se hubieran incorporado en los mismos, en el referido ejercicio, por cualquier causa, excepto los procedentes de ofertas de empleo público, o reingresado desde situaciones que no conlleven la reserva de puestos de trabajo. A estos efectos, se computarán los ceses en la prestación de servicios por jubilación, retiro, fallecimiento, renuncia, declaración en situación de excedencia sin reserva de puesto de trabajo, pérdida de la condición de funcionario de carrera o la extinción del contrato de trabajo o en cualquier otra situación administrativa que no suponga la reserva de puesto de trabajo o la percepción de retribuciones con cargo a la Administración en la que se cesa.*

*Seis. La tasa de reposición de efectivos correspondiente a uno o varios de los sectores definidos en el artículo 20. Uno.2 podrá acumularse en otro u otros de los sectores contemplados en el citado precepto o en aquellos Cuerpos, Escalas o categorías profesionales de alguno o algunos de los mencionados sectores, cuya cobertura se considere prioritaria o que afecten al funcionamiento de los servicios públicos esenciales.*

Udaleko kontu-hartzaileak eta Giza Baliabideetako arduradunak espedienteari buruzko txostena egin ostean, eta ikusita espedientean dagoen dokumentazioa eta Antolakuntzako informazio-batzordeak horren alde emandako irizpena, Udalbatzarrak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehena.-** Udaltzaingoa egun hutsik dauden 6 udaltzain plaza birjartzeko eskaera egitea, 2016 eta 2017 urteetako Lan Eskaintza Publikoarekin lotuta.

**Bigarrena.-** Adieraztea akordio honetako lehen atalean deskribatutako neurriak ez duela arriskuan jartzen aurrekontu egonkortasunaren helburua, Kontu-hartzailetzaren txostenean jasota geratu den bezala.

**Hirugarrena.-** Plaza horien deialdia egin aurretik, akordio honen berri ematea Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioari, egiaztatu dezaten.

## 10.- PLANTILLA ORGANIKOAREN ETA LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

2016 I 399 0070 espedientea

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborrea irakurri du idazkari andreak. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	14	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Horrela, bada, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

“2017ko urtarrilaren 3an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak 2017. urterako PLANTILLA ORGANIKOA eta LANPOSTUEN ZERRENDA onartu zituen.

Orain, behin-behineko langileen zehaztapenak eta ordainsariak aldatzeko proposamena aurkeztu du PSE-EEK.

Hori horrela, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,



## ERABAKI DU

**Lehena.-** Behin-behineko langileen ezaugarriak eta ordainsariak aldatzea eta, ondorioz, indarrean dauden PLANTILLA ORGANIKOA eta LANPOSTUEN ZERRENDA ere aldatzea, bertan ondoko zehaztapenak sartuta:

### 2017ko PLANTILLA ORGANIKOA

#### BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK

KODEA	IZENA	ZENBAT	TALDEA	AKT	HUTSAK	OHARRAK
1.2.5	Talde politikoko idazkaria	2	C2	2	0	% 100% / % 47,63

### 2017ko LANPOSTUEN ZERRENDA

#### BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK

IZENA	DOT	LM	H	ST	DO	BO (14)	E/A	TITULUA	HE	DER. DATA	LA	DED
Talde politikoko idazkaria PSE-EE (%47,63)	1	B	I	C2	16	18176,76		200	3		1	1

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen denetik 15 egun balioduneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izan daitezzen.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, erabakia behin-betiko onartutzat hartuko da. Bestela, berariazko erabakia hartu beharko da, egindako erreklamazioak erabakitzeko.

**Hirugarrena.-** Aurrekoa bete ostean, PLANTILLA ORGANIKOAREN eta LANPOSTUEN ZERRENDAREN aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, toki-araubide arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duenak, 127. artikuluan, bai uztailearen 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 16. artikuluan, xedatzen dutenaren arabera.

## 11.- ZINEGOTZI BATEN DEDIKAZIOA ETA ORDAINSARIAK ALDATZEA

2017 I 399 0018 espedientea

Aztergai honen akordio-zirriborroa irakurri eta gero, proposamena bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	14	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 2 Irabazi Zarautz)
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	7	(7 EH Bildu)

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2015eko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran, Udaltzarrak finkatu zituen, agintaldi berrirako, bai dedikazioak eta beren ordainsariak, bai zinegotzientzako eta udal taldeentzako dirusariak.

Orain, Patxi Elola Azpeitia zinegotzi berriari dedikazioa finkatzeko proposamena aurkeztu du PSE-EE udal taldeak.

Hori horrela, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udaltzarrak, botoen gehiengoarekin,

#### ERABAKI DU

**Lehena.-** PSE-EE udal taldeko zinegotzi Patxi Elola Azpeitia jaunak dedikazio partzalean jardungo du (hasieran, % 15).

**Bigarrena.-** Honako ordainsari hau finkatzea, Udalean indarrean dagoen araubidearen arabera:

Patxi Elola Azpeitia jn.:	(% 15 - 22. maila)	497,92 euro, 14 hilekotan
---------------------------	--------------------	---------------------------

**Hirugarrena.-** Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorriari eskatzea Patxi Elola Azpeitia zinegotziari ALTA emateko, 2017ko apirilaren 1etik aurrera.

Udalak bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorriaren arauak enpresei –beren kontura dituzten langileei dagokienez– ezartzen dizkieten betebeharrak.

**Laugarrena.-** Adierazitako zinegotzi horren dedikazio partziala % 30ekoa izango da, eta hori, 2017ko Plantillaren eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketaren behin betiko onespena argitaratu ondoren.”

#### 12.- ZARAUZKO UDALEKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO LEHIAKETAREN KLAUSULA-AGIRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA

2017 I 120 0001 espedientea

Eguneko aztergai honetara iritsita, prestatutako akordio-proposamena irakurri du idazkari andreak, eta horren inguruko iritzia azaldu dute udal taldeek.

Eztabaida amaitutakoan, batzarburuak horrela aginduta, proposamena bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	19	(10 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	2	(2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	-	

Horrela bada, adierazitako botoen gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Kontratuaren gaia da ZARAUZKO UDALEKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA esleitzea, Administrazio-klausulen Agiriak eta Baldintza Teknikoen Agiriak xedatutakoaren arabera.

Kontratuak lau (4) urteko iraupena izango du, formalizatzen denetik kontatzen hasita. Hala ere, kontratua urtez urte luzatu ahal izango da, baina iraupen osoa, luzapen eta guzti, gehienez ere sei (6) urtekoa izango da.

Ikusita kontratazio horretarako Administrazio-klausulen Agiriak eta Baldintza Teknikoen Agiriak, bai eta Herritarren arloko informazio-batzordeak emandako irizpena ere, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

#### ERABAKI DU

**Lehena.-** ZARAUZKO UDALEKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA kontratatzeko Administrazio-klausulen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria onartzea.

**Bigarrena.-** Deialdia egitea, kontratu hori prozedura ireki bidez esleitzeko, gehienezko prezio hauetan:

Astelehenetik ostiralera, biak barne:

20,23 euro/orduko + 0,81 euro BEZ (% 4)	Guztira: 21,04 euro/orduko
---	----------------------------

Larunbat, igande eta jaiegunak:

23,00 euro/orduko + 0,92 euro BEZ (% 4)	Guztira: 23,92 euro/ orduko
---	-----------------------------

**Hirugarrena.-** Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo udal aurrekontuan, partida honetan: 1 0507.227.11.231.10 2017 4215

Halaber, zerbitzu honek eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere behar adina kreditu jartzeko konpromisoa hartu du Udalak.

**Laugarrena.-** Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea ZARAUZKO UDALEKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN kontratua esleitzeko erabakia, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Bosgarrena.-** Kontratazio-espeditentean nahitaezkoak diren gainerako izapideak betetzea, eta lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.”

**13.- ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO KLAUSULA-AGIRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA**  
2017 I 120 0003 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	–	

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Kontratuaren gaia da ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUA esleitzea, Administrazio-klausulen Agiriak eta Baldintza Teknikoen Agiriak xedatutakoaren arabera.

Kontratuak lau (4) urteko iraupena izango du, formalizatzen denetik kontatzen hasita. Hala ere, kontratua urtez urte luzatu ahal izango da, baina iraupen osoa, luzapen eta guzti, gehienez ere sei (6) urtekoa izango da.

Ikusita kontratazio horretarako Administrazio-klausulen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria, bai eta Herritarren arloko informazio-batzordeak emandako irizpena ere, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

**ERABAKI DU**

**Lehena.-** ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUA kontratatzeke administrazio-klausulen agiria eta baldintza teknikoaren agiria onartzea.

**Bigarrena.-** Kontratu hori esleitzeko deialdia egitea, prozedura ireki bidez eta gehienezko lizitazio-prezio hauetan:

Lanegunez, orduko prezioa (P1):	28,00 € BEZ barne	23,14 € + 4,86 € BEZ
Jaiegunez eta/edo gauez, orduko prezioa (P2):	33,00 € BEZ barne	27,27 € + 5,73 € BEZ
Urteko gutxi gorabeherako lizitazio prezioa	1.224.107,92 € BEZ barne	1.011.659,44 € + 212.448,48 € BEZ

**Hirugarrena.-** Kontratutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko dagokion aurrekontuan behar beste kreditu edukitzearen baldintzapean geratuko da kontratu honen benetako esleipena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 110-2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber, aurrekontuetan eskumena duen organoak konpromisoa hartu du zerbitzu horrek eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere behar adina kreditu jartzeko.

**Laugarrena.-** Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN kontratua esleitzeko erabakia, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Bosgarrena.-** Kontratazio-espeditentean nahitaezkoak diren gainerako izapideak betetzea, eta lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profileen argitaratzea.”

Une honetan **kontu-hartzaile** andrea bilkuratik joan da.

#### **14.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:**

– **Etxegabetzeak ekiditeko gizarte laguntzen aurrean, hainbat finantza erakundek duten jarrera salatze**

2017 O 001 0015 espeditentea

Segidan, korporazio-kide guztiek adostutako adierazpen instituzionala irakurri dute:

#### **ETXEGABETZEAK EKIDITEKO GIZARTE LAGUNTZEN AURREAN, HAINBAT FINANTZA ERAKUNDEK DUTEN JARRERA SALATZEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Hipotekek kaltetutako pertsonen Plataformak (PAH), epaitegietan bankuekin izandako negoziazioetan lortutako aurrera kaleratzeen aurka, eta kaltetuen babesean lanean ari diren abokatuak egindako urratsek, derrigortu egin dute Madrilgo Gobernuak legean egokitzapenak egitera, eta oraindik bide luzea badago ere, urrats positiboak izan diren neurrian, garrantzitsua da hauek betetzen direla ziurtatu eta herritarren eskubideen zaintza areagotzea.

Espainiako Gobernuak emandako urratsetako bat 6/2012 Erret Dekretua izan zen:

6/2012 Erret Dekretua, martxoaren 9koa, errekurtsorik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presazko neurriak ezartzen dituena, 1/2013 maiatzaren 14ko Legea eta 1/2015 Erret Dekretua otsailaren 27koaren bitartez modifikatua izan zen, Bankuen Praktika Onen kodea, entitate finantziario denak atxikirik daudena.

Guindos dekretu modura ezagutzen den honek, praktika onen kode bat ezartzen du, bere borondatez izena eman eta atxikitzen diren finantza erakundeei. Eta berau baliatuz, baldintza jakin batzuk betetzen dituzten bezeroek, mailegua ordaintzeko

zailtasunak badituzte, zor duten dirua ordaintzeko 5 urteko etenaldi bat izateko aukera dute. Epe horretan soilik interesa ordaindu beharko dute, Euribor+0,25. Neurri honen helburua, denbora bitarte horretan mailegua ordaintzeko arazoak dituenaren egoera hobetu eta ordainketari aurre egiteko erraztasuna ematea da, bitartean etxea galdu gabe. Aipatzen dugun Arau honek, Praktika Bankario Egokien Kodeak alegia, atxikitako entitateak, familiaren batek mailegua ordaintzeko arazorik duela jakin bezain laister, Kode honen aplikaziorako beharrezkoa den informazioa eskuragarri jartzera behartzen ditu.

Aipatutako kode horretara, Euskal Herrian maileguak ematen dituzten finantza erakunde nagusiak batu ziren arren, kaleratzeen aurka lanean diharduten elkarteek arabera, hainbat finantza erakunde egoera horretan dagoen jendeari ez dio aukera hau eskaintzen. Beraien egoera arintzeko lagungarri izan daitekeen formulazioa eskaini ordez, gain zorpetuko dituen beste mailegu bat eskaintzen diote edota abalista modura aritutakoari zorraren ordainketa eskatu.

Hainbat kasutan, egoerari aurre egin ezinda etxea galtzeko arriskuan egon daiteke jendea, aipatu kodea aplikatuz gero, ekidin ahal izango lukeena; era berean, jende askok gizarte laguntzeara jotzen dute, bizi duten une zailari aurre egiteko babes bila.

Aurrekoa kontutan izanik, honako Adierazpen Instituzionala aurkezten dugu Zarauzko Udaleko alderdi politiko guztiek:

1.- Udal honek, hainbat finantza erakundeen aldetik, mailegua eskatu eta ordaindu ezinean dauden bezeroekiko dagoen jokabidea irmoki salatzen du.

2.- Udal honek, herrian bulegoa duten finantza erakundeekin harremanetan jarri eta beraien jarduna nolakoa den ezagutzeko konpromisoa hartzen du; era berean, Praktika Onen Kodean izena eman zuten jakin eta hartutako konpromisoak bete ditzaten eskatzeko ardura ere bere gain hartzen du Udalak.

3.- Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako departamentuak desjabetzeen kontrako protokoloa garatu zuen eta Udal Batzarrak onartu zuen 2016ko uztailean. Era berean, Zarauzko Udal Batzarrak Zarauzko herria "desjabetzeen kontrako herria izendatu zuen eta gaur konpromiso hori berretsi egiten du.

4.-Zarauzko Udalak, eskumena duten zerbitzu sozialen bitartez ziurtatu beharko du, gaur egungo GLL-AES eta etxebizitza laguntzen jasotzaileak, behar bezala informatuak izan direla beraien entitateetan, eta aldi berean, esku hartu dezala bankuak legean jasotako eskubide hau aplikatu diezaieten.

5.- Udal honek, Praktika Onen Kodeak derrigortzen dituen moduan, bere bezeroen artean aukera honen berri zabaltzeko neurriak har ditzatela exijitzen die herrian bulegoa duten finantza erakundeei.

6.- Udal honek, Praktika Onen Kodeari zabalkundea emateko informazio kanpaina bat garatzeko konpromisoa hartzen du. Bide batez, Gizarte Zerbitzuetara laguntza eske hurbiltzen diren herritarrei gaiaren inguruan informazio zehatza emateko baliabideak jarriko ditu udalak.

## 15.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:

### – Europako Justizia Auzitegiak Mendebaldeko Saharari buruz emandako epaia betetzearen gainean

2017 O 001 0016 espedientea

Era berean, udal taldeek adostutako adierazpen instituzional hau irakurri dute:

#### ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EUROPAKO JUSTIZIA AUZITEGIAK MENDEBALDEKO SAHARARI BURUZ EMANDAKO EPAIA BETETZEAREN GAINEAN

2016ko abenduaren 21ean, Europako Justizia Auzitegiak erabaki zuen ezen Mendebaldeko Sahara ez dela Marokoko Erresumako zati, eta horrek esan nahi du Europar Batasunaren eta Marokoren arteko ezein merkataritza-akordio ezin dela aplikatu Mendebaldeko Saharan, eta ezin dela merkataritza jarduerarik ezarri, ezta Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak esportatu ere, saharar herriaren onespenerik gabe.

Epai hori nahitaez bete behar dute Europako eta Estatuko agintariek; horregatik, beren betebeharra da hori errespetatzea eta, gainera, herritarrei ezagutaraztea, behar bezala aplikatze aldera.

Halaber, NBEko Segurtasun Kontseiluak 2016ko apirilean onetsitako 2285 ebazpenaren arabera, irtenbide politiko bat lortzea eta Magrebeko estatuen arteko kooperazioa hobetzea lagungarriak izango dira eskualdeko egonkortasunerako eta segurtasunerako.

Aurretik egindako adierazpenetan gogoratu izan denez, Espainiak, 1976ko otsailaren 26an, alde egin zuen Mendebaldeko Saharako lurraldetik, bukatu gabe utzirik deskolonizatze-prozesua, NBEren esparruan abiarazita zegoena; hortaz, Espainiako Estatuak erantzukizun historiko, juridiko eta morala dauka saharar herriarekiko.

Horiek horrela, Zarauzko Udalaren Osoko Bilkurak:

1. Dei egiten du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko abenduaren 21eko epaia errespetatu eta betetzera, zeinen arabera Marokoren eta Europar Batasunaren arteko asoziazio- eta liberalizazio-akordioak ez diren Mendebaldeko Saharako lurraldean aplikatzen.
2. Adierazten du kezkatuta dagoela Europako konpainiek Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak ustiatzen dituztelako, zeren gai hori nazioarteko eta Europako zuzenbidearekin kontraesanean baitago; eta berriz ere gogora dakar legez kanpokoa dela saharar herriaren onespenerik gabe Mendebaldeko Sahararekin egindako merkataritza-jarduera oro.
3. Dei egiten die Europako, Espainiako eta Euskadiko konpainiei nazioarteko eta Europako zuzenbideari jarraikiz jarduteko, Mendebaldeko Sahararen marokoar okupazioa iraunaraztea eta horko baliabide naturalen ustiaketa faboratu ditzaketen jarduerak utziz (esaterako, hainbat alorretako jarduerak: arrantza, nekazaritza, fosfato- eta hare-erazketa, edo energia berriztagarria), eta agintari

guztiak bultzatzen ditu indarrean dagoen legeria ezartzera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren arestiko epaiari jarraikiz.

4. Bat egiten du euskal gizartearen elkartasun korrontearekin, zeinak urteak daramatzen exijitzen irtenbide politiko bat, bidezkoa, iraunkorra eta alde bientzat onargarria, autodeterminazio-erreferendum baten bidez Mendebaldeko Saharako gatazkari bukaera emango diona.

## **16.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:**

### **– Trenbidearen lurperatze lanen mozioa**

2017 O 001 0010 espedientea

Segidan, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako lehenbiziko proposamena irakurri dute. Honela dio:

### **TRENBIDEAREN LURPERATZE LANEN MOZIOA**

Euskal Trenbide Sarea (ETS) erakunde publikoaren eta Zarauzko Udalaren arteko elkarlan hitzarmena, udalerritik igarotzen den trenbide trazatuaren azterlana burutzeko, 2009 urteko otsailaren 4an sinatu zen.

Hitzarmen honen xedea Euskal Trenbide Sarearen (ETS) eta Zarauzko Udalaren artean elkarlanean aritzeko hartutako konpromisoaren baldintzak ezartzea zen, Zarauzko udalerria igarotzen duten trenbide azpiegiturak lur azpian sartzeko Informazio Azterlanari buruzko dokumentuaren idazketa elkarren artean burutzeko eta finantzatu ahal izateko.

ETS eta Udalaren artean sinatutako hitzarmenaren arabera, 6 hilabetero bilduko liratekeen batzorde tekniko eta batzorde instituzionalak zehazten ziren, trenbide azpiegiturak lur azpian sartzeko azterlanaren informazioa trukatu eta behar den jarraipena egin ahal izateko. Batzorde horietako kideek hartu beharreko erabakiak aho batez izan beharko lirateke, hau da, erabakietan bi aldeek oniritzia beharko litzateke.

2010eko abenduaren 27an AYESA Y AYESA IPAR UTE-arekin sinatzen da trenbide azpiegiturak lurperatzeko azterlan informatiboa idazteko lanen kontratua, ZarauzkoUdalak esleipen prozeduraren informaziorik jaso ~~izan~~ gabe.

Zarauzko Udalak eskatuta, 2011ko azaroaren 18an lehen bilera teknikoa burutzen da, bertan udal ordezkariak ordura arte egindako lanaren informazioa eta trenbidea lurperatzeko landutako alternatiba ezberdinak eskatzen dizkiete ETS-ri.

Informazio eskaera horren hainbat eta hainbat notifikazio egin ondoren, 2012ko maiatzaren 25an, Eusko Trenbide Sareak lehen aldiz CD baten bitartez azterketaren nondik norakoaren informazio bat helarazten dio Udalari.

Jasotako lehen informazio horren aurrean, Udalak trazatu ezberdinen alternatiben informazio oso eskasa duela adierazten dio ETS-ri, eta trenbide azpiegiturak lurperatzeko egin diren azterketa guztiak izango dituen CD bat eta horrekin batera azterketa horiek garatzeko sortu diren dokumentu guztiak eskatzen dira.



2012ko maiatzaren 30ean, batzorde teknikoak bigarren aldiz biltzen da. Udalak, aurretik bidalitako informazioa azterturik eta egitasmoaren afekzio urbanistikoak behar diren bezala azter daitezzen, bere eskuetan duen informazio urbanistikoa CD batean helarazten dio ETS-ri (informazio hori Udalak emana zuen azterlanak hasterakoan). Horrekin batera, udal zerbitzu teknikoak egindako txostena (Hirigintza eta Herrilan) jakinarazten da.

Laburbilduz, txosten horretan 2011ko azaroaren 18an ETS eta udal ordezkarien artean izandako lehen bileran, Ayesa Ipar Ingenieria Vasca, S.L-ek 2011ko abuztuaren idatzitako trenbide lurperatzearen alternatiba ezberdinen azterketa ezagutzera eman ez izana nabarmentzen da. Trenbide trazatu berriak izango dituen afekzio urbanistikoetan, azpiegiturretan eta zerbitzuetan sakonago aztertu beharra ondorioztatzen da txosten horretan.

Beste hainbat eskaera egin ondoren, 2013ko maiatzaren 17an batzorde instituzionala lehen aldiz biltzen da. Bertan, eskatutako informazio osagarria banatzen da. 2013ko abuztuaren 8an, Udaleko zerbitzu teknikoetako departamentu buruek txosten berri bat sinatzen dute. Txosten horretan, nahiz eta bi administrazioen artean elkarlanerako hitzarmen bat sinatua izan, Udalak dokumentuaren idazketan izan duen parte hartze eskasa, eta are gehiago, Udalarentzat oso garrantzitsuak diren erabakietan parte hartzerik ez duela izan salatzen da. Era berean, azterketaren dokumentazio guztia ez elkarbanatu izana eta eskatutako informazioa ez bidaltzea edo berandu bidali izana aipatzen da.

ETS-k, hainbat trazatu alternatiba ezberdin landu ondoren, lauren aurkezpena egiten du (beraien barianteeekin batera), 2. alternatiba onena izendatuz. Hirigintza eta Herrilan departamentu buruek egindako azterketek honakoa diote laburbilduz:

- PAGOZ-en garapena kontuan izanik tren geltoki ezberdinen balorazio azterketa lantzea eskatzen da.
- Gaur egungo trenbide azpiegitura desagertzearen ondorioz, libratuko den espazioaren berreskuratze proposamena eta oinezkoen, bizikleten eta autoen ibilbide sarearen hobekuntza analisisa, dagokion kosteak barneratuz.
- ETS-ek 2. alternatibaren alde hartutako erabakiak arazo larriak sortzen ditu ibilgailu sarean, Iritako eremuan izango duen afekzioa oso larria izango da, ingurumen balore handia duen gunea kaltetuko du eta suhiltzaileen komunikazio azkarrean eragingo du.
- 4' alternatibaren potentzialtasunaren azterketa lantzea eskatzen da, herriko trama urbanoaren permeabilidadea bermatu dezan, trenbidearen afekzioarik izango ez duelarik eta Zarautz eta Orio arteko bizikletaren bidearen aukera emanik.
- Obra lanen finantzazio portzentajeak zehazte aldera beharrezkoa ikusten da kosteen azterketa zehatza burutzea.

ETS eta Udalak sinatutako hitzarmenaren ez betetze garrantzitsuak ikusirik, 2013ko irailaren 13an Herrilan Batzordean aho batez erabakitzen da azterketaren lanen gelditze eskaera egitea. Alkateak irailaren 27an bidalitako idatziaren bitartez epe batean lanen gelditzea, bilera instituzionalaren deialdia egitea eta udal txostenean eskatzen den dokumentazioa bidaltzea eskatu zen.

Eskatutako bilera Instituzionala 2014ko apirilaren 14ean egitea lortu zen. Bertan udala eta ETS-ren arteko desadostasunak mahai gainean jarri ondoren, maiatzerako bilera tekniko bat deitzea adosten da.

Urtebete beranduago, 2015ko martxoaren 12an, eta berriro ere Udalak eskatuta, bilera instituzionala egiten da, inongo aurrerapausorik eman gabe eta erreklamatur zegoen dokumentazioa bidali gabe.

Laburturik, hau izan da aurreko legegaldian Eusko Trenbide Sarearen eta Zarauzko Udalaren artean sinatutako trenbide azpiegiturak lurperatzeko azterketa lanen hitzarmenaren inguruan izandako egoera.

Azken bi urte hauetan, nahiz eta galdetu izan dugun, ez dugu inongo informaziorik izan lan hauen inguruan eta ETS-ri buruz jakin dugun bakarra Santa Klarako azpigunearen lanen berri izan da.

Horrelako egoera larri baten aurrean, EH Bilduk honako eskaerak egiten dizkio Udalbatzari onartuak izan daitezen:

#### **MOZIOA:**

1. Eusko Trenbide Sareak hitzarmen honen inguruan izan duen jarrera salatzen du Udal Batzar honek.
2. ETS eta Zarauzko Udalaren artean trenbide azpiegitura lurperatzeko lanen azterketaren hitzarmena zein egoeratan dagoen informatzeko eskatzen diogu Udal Gobernuari.
3. Orain arte landu diren alternatiben inguruan Udalak bere erabakia hartu ahal izateko, behar den dokumentazio, azterketa eta kostuen analisisa ETS-ri eskatu eta udal teknikariek beraien iritzi eta txostenak egin ondoren, prozesu parte hartzaile bat irekitzea eskatzen dugu, aurkezten diren alternatibak herritarren artean egokiak diren eztabaidatzeko eta egokiak izatekotan onena zein den zehazteko.

Mozioa hizpide hartuta, eztabaida eta bozketa egin dituzte. Honela geratu da:

Aldeko botoak:	7	(7 EH Bildu)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	2	(2 Irabazi-Zarautz)

Horrenbestez, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU aurreko mozioa atzera botatzea.

Une honetan, gaueko hamarrak direnean, batzarburu jaunak bilkura eten egin du, atsedeen txiki bat egiteko; eta, bost minutura, hamarrak eta bostean, ekin diote berriro bilkurari.

## 17.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

### – Altsasu Mozioa

2017 O 001 0011 espedientea

Hurrena, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako bigarren proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

#### ALTSASU MOZIOA

Iragan urriaren 15ean, ordu txikitan, Altsasuko taberna batean jazo ziren gertaerak direla medio, herriko bederlatzi gazteri terrorismo-ekintza egotzi diete, horietako hiru behin-behinean espetxeratuak jarraitzen dute. Elkarbizitza, askatasuna eta justiziarekiko konpromisoarengatik, giza-eskubideekiko errespetuarengatik eta Zuzenbide-Estatuaren printzipioengatik, dokumentu hau sinatzen dugunok gure kezka adierazi nahi dugu kasua garatzen ari den moduarengatik.

Oinarritzat jotzen dugu jendarteak, instituzioetako ordezkariak, hedabideak eta sistema judizialak zuzentasun, inpartzialtasun eta proportzionaltasun irizpideen arabera jokatzeko. Errespetua zor diogu errugabetasun-presuntzioari eta, horrengatik, gure kezka agertu nahi dugu gazteen identitatea argitaratu izanagatik, horietako bi adin txikikoak izanik, eta atxilotetak gauzatu diren moduarengatik ere: agindu judizialik gabe eta ordu eta leku publikoetan, nahiz eta aurretik beren kabuz deklaratzera aurkeztu ziren. Epaile naturala ukatu zaie eta, jurista entzutetsuek azpimarratu duten bezala, berme prozesalako (defentsa-eskubidea, norbanakoaren ardura, interpretazio ez estentsiboa, proportzionaltasuna, bidegabekeria-eza...) zalantzatan geratu dira.

Gure kezka azaldu nahi dugu, era berean, gertaerak terrorismo delitutzat judizialki izendatzeagatik. Proportzionaltasun-faltak eta interpretazio estentsiboak urratzen dute askatasuna, berme prozesala eta herritar guztiok babestu behar gaituen segurtasun juridikoa. Hori dela eta, nabarmendu nahi dugu Foruzaingoak eta Guardia Zibilak idatzitako lehenengo txostenek ezeztatu eta errefusatu egin dutela gertaerak terrorismo-delitutzat kalifikatzea.

Kode Penalak terrorismoaren delituaren inguruko definizioa, Nazio Batuetako Giza-Eskubideen hainbat Errelatoreek zalantzan jarri dute behin baino gehiagotan. Zehatzago, indarrean dagoen definizioa, 2/2015 Lege Organikoak eragindako erreformaren ondorio dena eta bere zioen azalpenaren arabera terrorismo jihadistak bereziki borrokatzera zuzendua dagoena, duela gutxi (2015-02-23) Nazio Batuetako Giza-Eskubideen bost Errelatoreek zalantzan jarri dute "idatzita dagoen moduan, lege anti-terroristak terrorismotzat ezin daitezkeen jokabideak kriminalizatu ditzakelako eta besteren artean, adierazpen askatasunaren jarduteari neurri gabeko murrizketak eragin ditzakelako". Altsasuko kasua horren adibide argia da.

Terrorismo-ekintzat hartuz gero, 10-15 kartzela zigorra dagokie gazte hauei, erailketa delituari dagokion zigorraldia beraz, eta hori ez dator bat mediku agiritan adierazten diren lesioen larritasun mailarekin. Nabarmendu beharra dugu gehiegizko zigor horiek betetzeak gazteei ekarri dakizkien konpondu ezinezko kaltea. Azpimarratu beharra dugu behin-behineko kartzelaldia salbuespenezko kautelazko neurria dela. Kezkagarria da aipaturiko neurria gazte horiei ezartzea, behin baino gehiagotan, eta beren borondatez, epaitegietan aurkeztu direlako,

deklaratzeko prest. Ulertzen dugu familiek sentitzen duten babesik eta defentsarik eza.

Bestalde, gertaerak izan zirenetik hedabideek neurritz gaindi jorratu dute gaia eta Altsasuko herriaren errealitatearekin bat ez datorren irudia eman dute. Oso kaltegarria izan da, eta ez dio elkarbizitzari mesederik egiten.

Hori guztia kontutan izanik, Zarauzko EH Bildu Udal Taldeak, mozio honen bitartez honakoa ESKATZEN DU Udal batzarrak onar dezan:

1.- Proporzionaltasunaren, justiziaren eta ekitatearen printzipioak gailen daitezela, eta terrorismo-delituaren kalifikazioa ezabatzeke, eskumena Iruñeko 3. Instrukzio-epaitegiari bueltatzea, eta ondorioz, zazpi gazteak aske uztea.

2.-Aldi berean, agintari eskudunei eskatzen diegu (Fiskaltza Nagusia, Auzitegi Nazionala), aurreko astean Nafarroako Probintzia Auzitegiak egin bezala, norabide berean birplanteatu dezatela beren jarduna, eta Herri-administrazio, hedabide, gizarte eta politika-eragile eta jendarteari ere eskakizun hauek bete ditzatela eskatzen diegu.

Gaia eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	19	(10 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 Irabazi-Zarautz)
Kontrako botoak:	2	(2 PSE-EE)
Abstentzioak:	–	

Beraz, adierazitako botoekin, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako mozio hori onartzea ERABAKI DU Udalbatzarrak.

## **18.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:**

### **– Zerbitzu publikoak eta Udalaren ardura Mozioa**

2017 O 001 0012 espedientea

Era berean, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako hirugarren proposamena irakurri dute. Hona hemen mozioa:

### **ZERBITZU PUBLIKOAK ETA UDALAREN ARDURA MOZIOA**

Zenbait zerbitzu publiko enpresa pribatuen bitartez eskaintzen ditu Zarauzko Udalak. Zilegia, noski, eta ezinbestekoa askotan. Baina horrek ez du esan nahi Udalak bere ardura esleitzen duenik. Zerbitzu publiko horietan, langileen baldintza onak bermatu beharra dauka Udalak eta enpresa pribatua horretara derrigortzea egin dezakeen gutxienekoa da.

Azken hilabeteetan, horrelako bi kasutan, lan gatazkak izan ditugu gure herrian. Lehenengoa, eraikin publikoak garbitzen dituzten Limpiezas Villar enpresako

langileekin izan zen. Kasu horretan, dagokion moduan landu zen gaia, Udal gobernu langileekin eseri zen eta, adostasun batera iritsita, eskaera horiek ondoren enpresari eskatu beharreko pleguetan jaso ziren.

Kiroldegiko langileen kasuan, ordea, berandu dabil Udal Gobernuak. Balea eta BPXport enpresetako langileak 2016ko uztailetik ari dira Udalari eurekin eseritzeko eskatzen, euren lan baldintzak adosteko. Hain zuzen, Udalak eta enpresek 2016ko uztailetik dute esku artean langileen eskakizunak jasotzen dituen plataforma.

Udal gobernuak, bere ardura izanik, ez die langileen eskaerei kasurik egin eta ezer adostu aurretik pleguak argitaratu ditu, langileen egungo lan baldintzak arriskuan jarri. Plegu horietan ez dira langileen eskaerak txertatzen. Langileen eskaera horixe zen, hau da, BPXport eta Balea Igeriketako langileak hitzarmen duin bat enpresekin sinatu eta Udalak argitaratu berri dituen pleguetan hitzarmen horri erreferentzia egitea da.

Ordea, Udal Gobernu honek pleguak argitaratu ditu euren eskakizun eta beharrak bertan jaso gabe eta unilateralki. Behin egoera honetara iritsita, langileen lan-baldintzen aldarrikapenen aurrean lortu litekeen akordioa jasotzeko aukera bakarra, pleguak atzera botatzea eta berriak idaztea litzateke.

Honen harira, azpimarratu behar da, pasa den martxoaren 17an Udaleko sarrera erregistroan sarrera izan zuela enpresa baten idatziak. Idatzi horretan, enpresa horrek adierazten zuen, interesaturik zegoela lehiaketa honetan parte hartzeko baina lan-gatazka bat egonik, Udal Gobernuari eskatzen zion lizitazioa atzeratzeko.

Kiroldegiko langileak BPXport eta Balea Igeriketa enpresetako ordezkariekin eta Udal Gobernuko ordezkariekin bildu ziren martxoaren 22an, beraien kontra proposamena aurkezteko. Astelehenean, martxoaren 20an, Udal Gobernuak BPXporten proposamena jarri zien mahai gainean, eta honi erantzunez, langileek euren kontra proposamena aurkeztu zuten: soldata KPI gehi 1,8 puntu igotzea, eta begiraleei eskolak prestatzeko orduak ordaintzea. BPXport langileek eskatutakoa aztertzekotan geratu da.

BPXport eta Balea Igeriketako langileek 12 greba egun daramatzate soinean, horrek guztiak dakartzan ondorioekin. Konponbiderik ezean, greba mugagabera joko dute langileek martxoaren 27tik aurrera.

Aurrekoa kontutan izanik, Zarauzko EH Bildu Udal Taldeak, mozio honen bitartez honakoa ESKATZEN DU Udal batzarrak onar dezan:

- Plegu horien lizitazio prozesua geldiaraztea edo beharrezkoa bada, etenaraztea langileen lan-baldintzak bermatzeko beharrezkoak diren klausulak jasota gelditu bitartean.

Udal taldeek beren iritzia eman ondoren, proposamena bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	9	(7 EH Bildu, 2 Irabazi-Zarautz)
Kontrako botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Horrenbestez, Udalbatzarrak ERABAKI DU, botoen gehiengoarekin, transkribatutako mozioa atzera botatzea.

## **19.- EAJ-PNV ETA EH BILDU UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:**

### **– M7 herri galdeketa Mozioa**

2017 O 001 0013 espedientea

Segidan, EAJ-PNV eta EH BILDU udal taldeek elkarrekin aurkeztutako proposamena irakurtzeari ekin diote. Hona hemen testua:

### **M7 HERRI GALDEKETA MOZIOA**

Zarauzko herritarrek, Euskal Herriko beste hainbat udalerritan egin duten moduan, euren etorkizun politikoa erabakitzeko nahia adierazi dute, eta hori modu ezin demokratikoago eta parte hartzaileago batean gauzatzeko asmoa jakinarazi dute: boluntarioek antolatutako herri galdeketa baten bidez, 2017ko maiatzaren 7an.

Zarauzko Udaleko hautetsiok, herritarron ordezkari politikoak garen neurrian, badakigu demokrazia osasuntsu baten oinarria horixe dela: herritarrek euren kabuz erabaki nahi eta ahal izatea eurei eragiten dieten gaiei buruz, horretarako tresna ez baztertzaileak sortuz.

Azken urteotan geroz eta gehiagotan azaleratu dute herritarrek Euskal Herriaren estatus politikoari buruz erabakitzeko nahia, besteak beste, Gure Esku Dago dinamikak antolatutako ekintza jendetsuetan. Horietako bat, hain zuzen ere, gure herrian egin zuten ehunka lagunek, Munoa plazan ikurrina erraldoi baten mosaikoa osatuz.

Udal ordezkari gisa, herritarrek azaleratutako kezkei erantzutea dagokigu. Halaber, ulertzen dugu erabakitzeko nahi horren barruan hainbat aukerak dutela lekua. Gure herrian badira Euskal Herriaren nazio izaera eta bere burua gobernatzeko eskubidea eskatzen dutenak; baina baita independentzia nahi izan gabe estatus politikoan aldaketa bat nahi dutenak ere. Azkenik, ezin dira ahaztu oraingo estatus politikoarekin kontent bizi direnak.

Guztiek dute gaiari buruzko informazioa jaso eta euren iritzia libreki adierazteko eskubidea, eta horixe du helburu ZaraHitz herri ekimenak 2017ko maiatzaren 7rako antolatu duen herri galdeketa. Herritarrei hitza emateko modu garbi, demokratiko eta bidezkoena da beraiei zuzenean galdetzea. Demokrazian sinesten duenak ez dio beldurrik izan behar herritarrei galdetzeari.

Horrenbestez, Zarauzko Udaleko eta Zarauzko herritarren ordezkari garen neurrian, honakoa adierazi nahi dugu:

## MOZIOA

Zarauzko Udal Batzarrak babes osoa adierazten dio maiatzaren 7ko herri galdeketari, herritarrek euren etorkizunari buruz erabaki eta erabakia adierazteko eskubidean sinesten dugulako.

Eztabaidaren bukaeran, batzarburuak horrela aginduta, proposamena bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	19	(10 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 Irabazi-Zarautz)
Kontrako botoak:	2	(2 PSE-EE)
Abstentzioak:	–	

Beraz, botoen gehiengoarekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU EAJ-PNV eta EH BILDU udal taldeek aurkeztutako mozioa onartzea.

### 20.- PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Erasoak jasan dituzten pertsonen, alderdiei eta erakundeei elkartasuna adierazteko Mozioa

2017 O 001 0014 espedientea

Azkenik, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako hurrengo proposamena irakurri du **Vazquez** andreak:

#### ERASOTUTAKO PERTSONA, PARTIDU ETA ERAKUNDEEKIKO ELKARTASUN MOZIOA

##### ARRAZOIA:

Euskadin, Frankoren diktadura bukatu eta gero, beste diktadura bat sufritzen jarraitu genuen, ETArena. 50 urte iraun zituen ETaren diktadurak, 50 urte, giza eskubideen aurkako atentatuak egiten. Zuzenbidezko estatuak bukatu zuen terrorismoarekin, baina zenbait jendek, oraindik ere, gorrotoak itsututa jarraitzen du. Eta hortxe dugu horren emaitza: azken asteetan herritarren askatasun eta eskubideen aurkako bortizkeria igo egin da.

Beste garai batzuetako mehatxu-sentsazioa etorri zaigu gogora, Altsasuko lau herritarrek lintxamendua jasan baitute, horietako bi herriko goardia zibilak zirelako. Ez dugu ulertzen gorrotoak nola itsutu dezakeen pertsona bat erasora eramateraino. Ez dugu ulertzen eta ezin dugu onartu, eta noski, gaitzetsi egiten dugu beti, inolako aitzakiarik gabe. Baina larriena izan den arren, hori ez da izan azken hilabeteetako eraso fisiko bakarra. Erasoa jasan dituzte hauek guztiak: Nacho Tocak, Bizkaiko Belaunaldi Berrien presidentea; Arrasateko Batzokiko langileak; Lander Martinezek, Podemosek Eusko Legebiltzarrean daukan bozeramaileak; eta Christian Fernándezek, Tolosako zinegotzi sozialistak.

Gainera, beldurrarazteko ekintza bortitzak gertatu dira, esate baterako, UPV/EHUren errektoregai den Nekane Balluerkaren aurka egindakoa, edo Donostiako Partidu Popularreko zinegotzi izan zen Maria José Usandizagaren etxeko atean agertu diren dianak, edo Zumaiko Herriko Etxean ETaren alde egin dituzten pintadak. Gainera, azken asteetan eraso bortitzak izan dira UPV/EHUren zenbait fakultatetan.

Pertsona eta taldeei etiketa bat zintzilikatu eta euren aurkako gorrotoa sustatzeak helburu bat du, seinalatuta utzi eta beren Giza Eskubideak urratzea. Horregatik, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak honakoa dio bere 2. artikuluan: Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.”

Ezinbestekoa da aniztasuna defendatzea, adierazpen askatasuna, eta gizarte justuagoa lortzeko lan egitea. Pertsonak, askatasun osoz, eta erabat errespetatuak izanda, ados ez egoteko eskubidea izan dezaten nahi dugu. Eta hori hala izaten denean, erabateko bizikidetzan lortuko dugu. Bizikidetzan ezingo dugu aurrera egin, gugandik desberdina dena edo gureak bezalako argudioak ez dituen gorrotatzen badugu. Giza Eskubideak defendatzeak esan nahi du helburu bat lortzeko bortizkeria erabiltzeari zilegitasuna kentzen zaiola, ideia bakar batek ere ezin duelako bortizkeriaren erabilera justifikatu.

Partidu politikoen ardura da bortizkeriari zilegitasuna kentzea, Giza Eskubideak defendatzea eta elkarbizitzaren alde lan egitea. Horregatik, PSE-EE udal taldeak Zarauzko Udalbatzarrari eskatzen dio honako mozio hau onar dezala:

## **MOZIOA**

1. Zarauzko Udalbatzarrak bere elkartasuna adierazten die, beren askatasuna eta eskubideak murrizteko asmoz, azken hilabeteotan mehatxuak jasan edo fisikoki erasotutako izan diren pertsona, partidu politiko eta erakundeei.
2. Adierazten dugu, pertsona bat mehatxatu edo erasotzen dutenean, pertsona guztiok erasotzen gaituztela.
3. Mozio honen berri ematea honakoei:
  - Altsasun erasotutako herritarrei, herri horretako Goardia Zibilaren kuartelaren bitartez
  - Nacho Tocari, Bizkaiko Belaunaldi Berrien bitartez.
  - Arrasateko Batzokiari eta erasoak jasan zuten langileei
  - UPV/EHUko errektoretzari.
  - Leioako UPV-EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien dekanotzari eta Vitoria-Gasteizko UPV-EHUko Letren Fakultateko dekanotzari
  - María José Usandizagari, Gipuzkoako Partidu Popularraren bitartez.
  - Zumaiko Herriko Etxeari eta Christian Fernándezi, Gipuzkoako PSE-EEren bitartez.
  - Lander Martínezi, Eusko Legebiltzarreko Elkarrekin-Podemos taldearen bitartez.



Eztabaidan zeudela, eta udal taldeek hitz egiteko lehenbiziko txanda amaituta, martxoaren 30eko gaueko hamabiak direnean, batzarburu jaunak bilkurari amaiera eman dio, Errregelamendu Organikoak 63. artikuluan xedatutakoa betetzeko. Izan ere, artikulua horretan ezartzen baita bilkura guztiak hasitako egun berean bukatu beharko direla.